

Esanak osotzen

Olazar'tar Martin

BERMEO
5,1985
349-352 or.

Esanak osotzen

Olazar'tar Martin

Bermeo'ko Idazleak gaur idaz-lana argitaratu genduanean (ikusi BERMEO 84, 61n.orr.) bide labana zala esaten genduan eta ondorenak orixe berori agertu dau. Zuzenketa ta osotze batzuk egin-bearra eta pozik egiten dogu lan au, egiak argi egin dagian.

68n.orraldean Goienetxea Lamenetarra agertzen da. Oraingo liburu onetan argitaratze⁷ dan lanak naikoa zuzentzen dau arazo au baiña ona emen zukenketak: Ez da Goienetxea *Sanz Goienetxea* baiño eta, naizta Jose Done Ikastetxean ikasle izana izan, ez da lemenetara eta ez Jose Done Ikastetxeko irakaslea be.

Beste idazle bat geratu da aitzuta, guk dakiguna: Urrutia ta Fradua'tar Jose Mari. Bermeo'n argitaratzen zan «Correo Antoniano» aldizkarian, 35n.zenbakian, 1969'ko jorraillean, 5n.orraldean aurkitu dogu bere idazlan bat euskeraz «Andonitarrari dei bat» idazpurua dauala. Bere euskerea oso errikoia da eta naikoa landua.

Bermeo'ren kondaira oraintsu erderaz argitaratu dauan Aita Pedro Anasagasti aitatzen da 67n.orraldean, baita bere lan batzuk gogoratu be, baiña asko lan geiago dira berak argitaratuak, bai euskeraz eta bai erderaz, batez be **Aranzazu** aldizkarian: 30 bat alkar-izketa, editorialak, euskerazko idazlanak. Ba-ditu, baita olerkiz beterik ingurrazti batzuk aita Oiñandia'ren eskuetan itzita.

73n.orraldean Anasagasti'tar Andoni idazlea agertzen da, baiña arrezkero berak idatzitako eta euskeraz idatzia dan lan luze bat eldu jaku eskuetara. Iruñako Principe de Viana Erakundeak (Aldundiaren barruan) argitaratzen dauan «Fontes Linguae Vasconum» aldizkarian agertu da eta idazpurua «*Itsas espezierik garrantzitsuenen Bermeoko terminologia*», 1980'an argitaratu eta 553-370 orrialdeetan.

71n.orraldean Erkoreka'tar Anton idazlea agertzen da eta ez dauala asko idatzi euskeraz esaten dogu, baiña ba-dira ezagutzen ez genduzan idazlan argitaratu batzuk: ETNIKER aldizkarian, 2n.zenbakian (1976) 35-46 orrialdeetan *Begizkune* idazpurua dala lan luzea: *Arabieratik euskerara aportazio batzu*, Iruñako Forudun Aldundiak argitaratzen *da.ua.ri Principe de Viana* Erakundearen ardurapean dagoan *Fontes Linguae Vasconum* Aldizkarian 445-449 orrialdeetan (33n.zenbakian); Eusko Ikaskuntzak argitaratu eban

IX Batzar Nagusiko liburuan beste idaz-lan bat agertzen da, idazpurua aul dala: *Begizkoaren aurkako era askotako osagai organiko kutunak Euskal Herrian* 403-406 orrialdeetan (1983); beste lan bat len aitaturako *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian, 1979n.urtean, 31nzenbakia 51-58 orrialdeetan, idazpurua: *Gorputz-izenak*.

BERMEO
5.1985
353-360 or.

*Sanz eta Goienetxea'tar Andres
idazle bermeotarra (1918-1951)*

Olazar'tar Martin

NORZAN

Ez da izan gauza erreza gure «Andresio» nor izan zan argitzea. Asieran Jose Done Ikastetxeko Lamenetarra ete zan uste genduan, baiña laster jakin genduan bide ori ez zala ziurra. Geroago, bai, jakin dogu, bere Liburuak astiro aztertuta. Ikastetxe orretan ikasle izan zala. Eta ori baieztatu dausku beregaz ikaslekide izan dan batek be. Fabulas I liburua eurai eskiñia da.

Gero arrantzale olerki-zalaren bat izan ete zan bururatu jakun, baiña bide au be ez da gertatu egokia, naizta arrantzale askoren laguna izan eta bere etxeokak be arraintzan ibilliak. Berak maitasun berezia dautso «Poeta del Mar» deritxon txalupeari eta bertako langilleai, baiña bera ez da iñoz arrantzalea izan.

Gaiñera, idazle au nor dan jakiteko beste oztopo bat be izan dogu. Bere eurkerazko esku-idazkian bigarren abizena ipinten dau lenengo GOYENETXEA TA SANZ'TAR ANDRESIO». Zergaitik aldakuntza ori? Izan leitekean «Goienetxea» abizena errikoiagoa dalako edo oitura ori aldi aretako euskal idazleen artean ba-ebillalako. Ezagutu doguz beste idazle batzuk be ori egin dabenak eta bear ba'da Sabin Arana'ren liburuetan be olako jokatibideren bat aurkitu al izango da.

Azkenean aurkitu genduan bide egoki bat: Bera ezagutu eban batek. Gartzia'tar Gabriel adiskideak, idazlearen anai baten zuzenbidea emon eustan. Fernando'rena, eta onegaz alkar-izketa luzea izan ondoren ainbat gauza argitu al izan nebazan.

Gero Gandiaga'tar Jose, Andra mariko abadeak, emon eustazan bere bateo ta eriotzaren jakingarriak.

Bermeo'n jaioa dogu ba gure Andres, 1918'ko bagillaren 6'an eta bere bateo-agiria Andra Mari'ko parrokian dago 5n.liburuan, 349n.orrialdean.

Basurtu'n il zan bularretiko gaisoaz 1951'ko jorrraillaren 17'an eta eriotz-agiria parroki beratan dago 7n.liburuan 19n.orrialdean.

Eta or bitartean izan zan idazle erritar eta errikoi onen bizitza eragiña: Nardiz'tar Jon kaleko 16n. atean bizi zan bere aita zapatariari laguntzen. Lau anai eta arreba bi ziran. Fernando bere anaiak ekarri euskun eskelan, ortik artu al izan dogu emen agertzen dan bere argazkia, bere anai-arreba lez Maria, Anjel, Gumersindo, Juana eta Fernando agertzen dira.

Lenengo maillako ikasketak Bermeo'n egin ebazan, esan doguz lez, Jose Done Ikastetxean lamenetarrakaz.

Gero «Lejiño»ra joan zan ta iru urte egin ebazan an. An lenengo eta gudaldian gero Jabier Ibarra'ren lagun egin zan eta onen «asistente» izan be bai eta egun baten mezea entzuten egozala zauritu egin ebezan biak. Geroago erri onetan «aguazil» izan zan eta bularretiko gaisoa etorri jakon. Gaiso onek eroan eban eriotzara 32 urteko mutil au.

Gaiso-aldian ogean edo jagita, asko irakurten eban eta itz kurutzatuak egiten be zalea zan.

Gaiso aldi onetan idatzi ebazan bere libururik geienak.

Eta emen oartxu bat: Bizitzeak eroanda, bera ibilli zan tokietan ibillita, nondik burutatu jakon gure Andres'eri idaztea ta euskeraz idaztea? Aldi areitan euskerearen aurkako giroa bizia zan benetan! Bere lagunakaz beti bertsogintzan eta esaldietan ibiltzen zan eta bere trebetasuna onartzen ez ebalako asarrean be agertzen dau iñoz. Zalantza barik, esango eutsoen lagun orreik, Bermeo-tarrak izanik, euskeraz egiteko bertsoak. Ortik sortuko jakon bere liburu-artean ondoen apaindua dan euskerazko liburu au idazteko gogoia. Dana dala, erderaz askoz geiago idatzi eban euskeraz baiño eta izkuntza bietan, batez be esukeraz, idazkerea ez da beti zuzena.

Lejiño ta gudaldiko aldi arriskutsuetan ba-eurekin berak eriotzea etorriko ete jakon bildura, eta orregaitik aldean eroian iztegia bera ilten ba'da norentzat izango dan idaztea.

Idaz-lana euskeraz

Gure Andresek ez dau irarkolaren bidez ezer argitaratu. Esan geinke, orduan, idazlea dala? Bai orixe! Zortzi liburu idatzi dauzana idazlea da, naizta zortzirak oraindiño esku-liburuetan agertu. Irarkola sortu-aurretik be izan ziran idazleak eta ez gitxi. Eta euskerazko liburua bat bakarra izan arren, ez da zertan ukatu izen au.

Euskeraz idatzitako liburua da azalez eta barruz ondoen apaindua. Barruan dator azalak apaintzeko gaiak «armadorean» alkartean erosi ebazala eta guztiz, burdin eta untze, 2,60 pezeta ordaindu ebazala.

Liburuaren gaiñean datorren idazkia au da:

EUSKERAZKO OLARGIAK

«ITXAZOKO IZAN ARGIAK»

GOYENETXEA ETA SANZ'TAR ANDRESIO'GAITIK.

82 orrialde dira guztiz, eta idaz-lan bakoitza, tintea ez nastateko, bitarteko ingi meiak banatzen dau.

Oneik dira olerkien gaiak: edo idazpuruak:

- Eskintza, erderaz, Ertzilla Museoaren irasle izan Ibarra'tar Xabier'eri.
Soneto bat da eta euskeraz be sonetoak dira geien atsegin jakozanak,

- Ibarra Jauna orduan Aldundiaren Zuzendari zan (2n.-3n.orr.).
- Arrantzaleai, batez be «Poeta del Mar» ontzokioai eskintza (5n.orr.).
 - Arrate Aingeru'ri (Bere maitea antza) eskintza (6-8n.orr.).
 - Azken agurra: Ito diranai itxaroten (9n.orr.).
 - Mal-Fraile'ren Sermoia (10-13n.orr.).
 - Izar Argia (sonettoa) (14n.orr.).
 - Matxitxakotik Tala'ra (15-16n.orr.).
 - Ertzilla Torra (sonettoa) (17n.orr.).
 - Gurasoan arazoak (18-20n.orr.).
 - Mariñelan miñak (21-22n.orr.).
 - Itxotxoriak (sonettoa) (23n.orr.).
 - Abantean (24-25 orr.).
 - Danetara nago (26 orr.).
 - Arratxaleak (sonettoa) (27 orr.).
 - Neure bazterrako mariñela (28-30n.orr.).
 - Itxazoagaz... (31-32 orr.).
 - Puskerrak (sonettoa) (33 orr.).
 - Jokolai arrantxaleak (34-36n.orr.).
 - Negarrak (sonettoa) (37n.orr.).
 - Daldu edo irabazi (38-50n.orr.).
 - Zorionean entzun aldeabanak (41-42n.orr.).
 - Izaroko atxa naguzi! (SONettoa) (43n.orr.).
 - Atun-zaleak (44-45n.orr.).
 - Edurne (sonettoa) (46n.orr.).
 - Esanak (47-48n.orr.).
 - Marieren urrumadie (49n.orr.).
 - Argitasunak (50-51n.orr.).
 - Argitasunak (50-51n.orr.).
 - Uzotxuak (sonettoa) (52n.orr.).
 - Kaltzapintxon barregarri (53-56n.orr.).
 - Trañeru eztropada bat (I) (57-64n.orr.).
 - Trañeru eztropada bat (II) (65-71n.orr.).
 - Trañeru eztropada (III) (72-80n.orr.).

Liburuaren azkenean izenpetzea ta urtea agertzen dira: 1948.

Idazpuru oneik edozein olerkeri onek ezarteko lakoak dira, baiña aztertu dagigun apur bat sakonago arazo au.

Sanz-Goienetxea idazleak darabilen euskera Bermeo'k erabiltzen dana da. Idazkerek Sabindarren bideak jarraitzen dauz baiña igarten jako idazlean euskera arloan alibetatu bakoa dana eta ori ez da arritzeko gauzea aldi aretan non eta zelan alfabetatu be ez egoalako. Naikoa egin eban giro

larri aretan euskeraz idazteaz.

Olerkariak ain bearrezkoa dauan irudimena ez jako falta.

Olerkariaren trebe-bodeak, geienean, ondo darabiltz eta neurria ta puntuak eredearenak artzea be ez da arritzekoa, bere eziketea be giro orretan izan zan eta izan bear izan eban ezkeru. Bermeo'tik urten barik ikasteko, olerkaritzan naikoa ikasia da.

Bere lan oneitan iru gai nagusi agertzen dirala esango genduke: Itxasoa arraintza ta maite-miña. Ona emen *Argitasunak* bere olerkitxua gure irakurleak aztertu dagien:

ARGITASUNAK

*Itxazora noiye
goizetik goizean;
ordua badoye
aurrera, zori onean;
ta argitudago zeruko illuntasunak
neure maitien begi-argitazunak.
Itxazoan nago
gau ta egun:
bitarte bat ez dago
damuz ezandegun...
ze nirexen biotz maite biguna,
beran argi berobarik da otx aztuna. (50n.orr.)*

«Argitudago» diñoan lekuan «Argitu dau» esango ba'leu, ez genduke oker aundirik aurkituko.

Euskerazko liburu au Aita Santi Onaindiari bialdu geuntson aztertu egian eta ona emen bere eritxi zorrotza ta zuzena (Ikusi ZER aldikariaren 8n. zenbakia, 1984'ko azillekoa, 7n.orr.):

«Ba'ditu amalauko geiago be jakituriz eta ganoraz jantziak. Aren lan guztiai umore ona darie euskaldun on bati legez.

Erderaz asko irakurria emoten dau, euskeraz ez ainbeste, baiña berezko euskeraz ez dauz txarto azaltzen bere barruko zartako ta ikarak».

Idaz-lanak erderaz

Sanz Goyenetxea'tar Andres'ek bere ibillaldi luze guztietan beragaz, erabilli eban erderazko iztegi batm, irudiz apaindua, «Aristos»ena 1941'ean irarria.

Iztegiaren orri utsetan bere esku-idatzi batzuk aurkitzen dira. Alan 2n. orrialdean:

*Nori emon nire orduak?
 Liburuari, domiñari legez,
 Aukerapen bizkorra ta arteza egiñez.
 Lagun onak dira liburu onak,
 Liburu ona iztegia izanez.*
 (Neuk euskeratuta)

Ori orretan goi-aldean Alonso de Erzilla'ren argazki bat agiri da. Lau-garren orrialdean «Anomimus»ek izenpetutako bertsoak datoz:

*«Esopo'ren alegiak legez, Batzuntzat onak beste batzuntzat txarrak.
 (Bermeo, 1946-6-12)*

260n.orrialdean: Iztegi au Andres Sanz'ena da (2.º Tercio, 6.^a Bandera, 22n.konpañia. Dar Riffiero).

Ni algo ba'nintz Anduiza'tar Lorentzo'rentzat izango da iztegi au. Jabea: A S. Goyenechea Dar-Riffiero 1-12-1941.

1.019n.orrialdean ondo egindako soneto bat dator, izenbako olerkariari eskiña (Bermeo XII-1946).

Erderaz berak idatzitako zazpi liburu daukaguz eskuetan. Guztiak eskuz idatziak eta marrakiz polito apainduak eta azal sendoakaz jantziak. Ona emen euren idazpuruak:

- Versos Nocturnos, 182 orri (1950).
- Fabulas Morales I, 104 orri (1950).
- Fabulas Morales II, 122 orri.
- Fabulas Morales III, 127 orri (Bermeo 1950).
- Fabulas Morales IV, 127 orri (Bermeo 1950).
- Estro Dorado, esku liburu txikia, 17 orri, 1950'eko iraillaren 12'an idatzia.
- Odas de Sanz, eskuz idatzitako liburu txikia au be (23-X-49) orrikoa.

Begiratu dagiguzan astiroago liburu oneik:

«*Versos nocturnos*» liburuak sarrera bat dauka, erromantiku-girokoa eta ondo egiña. Gero oar batzuk gaietara sartu orduko: «Batzutan jazorikoak dira, beste batzutan neuk asmaurikoak eta batak besteagaz ez dauke zer-ikusi-sirik». Eta beste oar bat zelan egin dauzan agertzeko: «Ikuspegi ederrak kontuan dirala, ingurua arduraz apainduta, norkiai eragiña ondo asmauta, eta beti mosuaz amaitzen dirala. Dana da maitasuna».

Bertso onak, eta irakurteko atsegingarriak dira.

Fdbulas Morales liburuak (I, II, III, IV) antxiñako alegien girotik doaz,

baiña gaurkotasun aundiagaz. Laburrak eta argiak dira alegiak. Lenengo liburua Lamenetarrai eskiñia da eta azkenean sei barregai datoz. Bigarrena Anduiza'tar Jose Benito Alkateari eskiñia, eta orduko Udal-Batzari be bai, azkenean beste sei barregai dirala. Irugarrena Roman eta Roman'dar Enrike pratikanteari eta bere etxeokoi eskiñia da, esker ona agertzeko. Laugarrena, bere anai-arrebai eskiñia: Anjel, Gumer, Juanita ta Fernando.

Estro Dorado liburutxua Izen-bako olerkariari olerki bat dakar eta odak eta sonetoak nastean. Barruan bere anai-arrebai eskintzak.

Eta azkenez «Odas de Sanz» liburua (Mis mas sobresalientes Versos) Lorentzo'ri eskiñia da. Emen ez dakar abizenik baiña, iztegian esandakoa kontuan dala ba-dakigu *Anduiza* dana. Barruan diño gaiñera, liburua eskintzean Bermeo'n, 1949-X-23. Bertso batzutan euskerea ta erdereea nastean darabiltz.

Orra or Andres Sanz Goienetxea gure idazlearen barriak. Erri-maillan olako lanak egin dauzan mutil gazteak merezi dau gogoan izatea. Izan beite ba lantxu au beretzat oroitarria.

